

AMAK EZKONDU EGIN NAHI DU

I

“AMAK ezkondu egin nahi du”.

“Zer?”

“Amak ezkondu egin nahi duela”.

“Manuelekin?”

“Manuelekin”.

Begoña entsaladarako Marie Antoinetteren burua izan zitekeen tipulina gillotinatzen ari da. Haurrak dekretuz sukaldetik desagertu diren arte itxaron du amarena kontatzeko. Bakarrik gaude tipulinaren sarraskiari begira. Igor Begoñaren senarra ez da oraindik heldu. Igor Begoñaren senarra ez da sekula heltzen.

Ideia absurdo bat etorri zait burura. Aita.

“Duela zenbat hil zen aita? Urte eta erdi?”

“Horrelako zerbait. Gutxi”.

Atzo gertatu zen urte eta erdi.

Belaunaldi honetan aita batek eta bere alabek izan zezaketan bezain estua zen gure arteko harremana. Ez dut bere kuttuna nintzenik esango. Itsusia da norberak hori esatea. Baina bere kuttuna nintzen eta etxean denek dakite hori. Eta denek gorrotatzen zuten ni bere kuttuna izatea, axola zitzaizela disimulatzen saiatzen ziren arren. Gure familian asko ematen den zerbait da, gauzek axola ez dutela disimulatzen saiatzea, arrakasta handiegirik gabe.

Laurogei urtera heltzeko egun batzuk falta zitzaizkion hil zenean. Medikuen gomendio guztien kontra operatu behar nion Cardhu botila hura jaso gabe hil zen. Nik edan nuen osorik. Ezkutuan. Antza denez, hori da Cardhu botila bat edateko dakidan modu bakarra. Osorik eta ezkutuan. Hura ez zen botila bakarra izan. Ezta azkenekoa ere.

Minbiziari bi bala hartu zizkion aitak. Lehenengoa, prostatara joan zen. Handik urte batzuetara, bizi kalitate onargarri batekin bizitako urte batzuen ostean, bigarrenak urdailean eman zion. Horrek ez zuen atzera bueltarik eskaini. Ez zioten tratamendurik eman, ez ebakuntzarik egin. Bide zuzenena hartu eta hil egin zen. Denbora gutxian izan zen dena, eskerrak. Aita sufritzen ikusteak ez zion ezer onik ekarri gutako inori. Ez zen ikasketarik egon. Familia bezala ez gintuen gehiago batu eta ez gintuen indartsuago egin. Aitaren sufrimendua, sufrimendua izan zen guztiontzat. Bestelako gehigarririk gabeko sufrimendua.

Amak ondo eramane zuen. Hasieran ez zitzaizun hala iruditu, geure minaren itzalak guztia estaltzen zuelako. Baina berehala konturatu ginen, guk ez bezala, mendetan zehar naturaren legeak alargundutako emakumeek pilotatu duten estoizismorekin jokatzeko zuela. Aitaren arropa

guztia poltsetan sartu eta Caritas-era eramán genuen. Bizitza osoan zehar pilatzen diren eta ezertarako balio ez duten gauza guztiak errefusaren kontenedorera joan ziren. Badira birzikla ezin daitezkeen oroigarriak. Lurra kutsatzen gelditzen dira betiko.

Etxean gelditzen den aitaren arrasto bakarra, zenbait alzariren gainean dauden argazki zaharrak dira. Gehienetan gutakoren bat ere agertzen da, gutakoren bat iraganean izandako norbait, hobeto esan. Agertzen diren gu horiek aita bezain hilik daude. Baina haiek, aita ez bezala, ez ditu inork faltan botatzen.

Amak Manuel nola ezagutu zuen ez dakit oso ondo, anai-arreba bakoitzari bertsio desberdin bat kontatu digulako eta ziurrenik hiruretako bat bera ere ez da egia osoa izango, ezta erabateko gezurra ere.

Bera baino gaztexeagoa da Manuel, ez gehiegi ere, ez-kongabea. Ez dira hiztunak. Ez dute jendearen aurrean elkar ukitzen. Baina arratsaldeak batak bestearen aldameanean igarotzen dituzte, isilean. Beraien bizitzaren momentu honetan, hori nahikoa dela ematen du. Zinemara joaten ziren bakoitzean elkarrekin lo gelditzea ere nahikoa izango zela uste nuen, ez zutela beste inon elkarrekin lo egin nahi izango. Baina gaur jakin dut ez dela horrela. Amak ezkondu egin nahi duela.

Begoñaren haserrea entsaladari bota dion Modenako ozpin kantitatearen arabera neurtu daiteke. Aceto-a gaur ez da ezeren baltsamoa. Begiak erdizka itxi ditut probatzera-koan, eta hosto eta tomate zatiei bueltak ematen hasi naiz, ea Begoñaren ozpinaz haratago beste zeozer dastatzerik ba ote dagoen. Zaila da esatea.

“Joni esan beharko diogu”.

Jonek ez daki ezer. Jon beti da gauzak jakiten azkena. Horretarako da anaia txikiena. Horregatik pentsatu behar dugu deitu baino lehen nola esango diogun amak, gure amak eta ez beste inorenak, ezkontzeko asmoa duela.

Begoña eta bion artean ez ditugu gauzak esan baino lehen pentsatzen, bota egiten ditugu, batzuetan bere gordinean, gehienetan ez pentsatzeak dakarren zentzugabekeria. Jonekin desberdina da. Ez bereziki sentikorra edo emozionalki ahula izategatik. Jon ez delako ez bata, ez bestea. Gure ahuldade propioarengatik dela esango nuke. Mundu honetan urte gutxi batzuk gehiago igaro izana baino argumentu hoberik ez dugu aurkitu beraren aurretik gaudela eta aurretik egoteak berarekiko gure ardurak ezartzen dizkigula onartzeko. Baina gaur gauean ez dugu Joni nola esango diogun pentsatzeko gogorik. Amaren esku, hori.

Supermerkatuan erositako ardo eskaintza edaten ari gara horren orde. Igorrentzat zerbait utziko dugun galde-tu diot Begori. Ez nago ziur ozpina (entsaladarekin) gorde nahi dion, baina behintzat ez du bere senarrari ardoa uzteko asmorik. Gure kopak bete ditu eta topa egin dugu, mekanikoki, egiten ari garen honetan gehiegi sinetsi gabe. Ez zaigu topa egiteko aitzakiarik otutzen.

“Behintzat ez du datarik aipatu. Desio abstraktu batean geldituko den itxaropena gorde dezakegu”.

“Gorde non? Gure bihotzetan?”

Ez dakit honetarako bihotzik gelditzen ote zaigun. Nik behintzat lanpetuegia daukat egunaren amaieraraino heldu ahal izateko odol sistemaren martxa mantentzen. Bankuko

gordailu horietako batean sartu dezakegu gure esperantza. Amonaren bitxiekin batera.

Testamentua du buruan Begoñak. Ez da buruan gehiegi izatea ere. Etxea, Santander bankuko akzio batzuk, amonaren eraztunak, kontu korrontean gelditzen den dirua.

“Amak bere senar berria ekuazioan sartuko balu, zer?”

“Horrek kezkatzen zaitu?”

“Zerk kezkatu behar nau? Amaren desengainu posible batek? Berrogei urteak pasa ditut, Eli. Ezkondurik nago, nerabazarora iritsi arte isilik egoteko gai izango ez diren bi seme-alaba ditut. Desengainuarekin oheratzen naiz egunero”.

Desengainua aurkitu dut irteterakoan. Igor atarian sartzen ari zen igogailutik atera naizenean. Ateari zabalik heldu dio. Ofizinan ordu estrak sartzetik datorrela dio buruz errezitatu didan komunikatu ofizialak. Irribarre egiten diot agur esaterakoan. Mundu guztiari egiten diot irribarre agur esaterakoan.

II

IRATIRI ere irribarre egin nion etxetik alde egin zuenean. Nire hortz zurien argiarekin defendatu nahi izan nuen nure burua iluntasunaren kontra. Gorputz osoan zehar ditudan kolpe eta zauriek agertzen dutenaren arabera, ez zuen gehiegi funtzionatu. Egunero ubeldura berri bat aurkitzen dut, eta inoiz ez dakit nola gertatu den.

Elkarrekin bost urte egin ondoren nire gertukoentzat “zure pisukide hori” izaten jarraitzeagatik izan zen dena

neurri handi batean. Edo, bere hitzetan, “mende honetan bizitzeko nire gaitasun eskasagatik”. Arazoa ez nintzela ni, arazoa nire ingurukoak zirela insistitu nion. Eta aldi bakoitzean berak gauza bera erantzuten zidan: guk egiten ditugula gure ingurukoak diren bezalakoak. Beste guztia, erantzukizunari bizkarra ematea dela. Norberaren arazoen aurrean, ostrukaren moduan, burua zuloan sartzea.

Une horietan Iratik nire bikotea izateari uzten zion eta psikologoa izatera itzultzen zen.

Etixerako bidean telefonoz deitu diot Iratiri. Noizean behin egiten dut eta, nire harridurarako, gehienetan hartu egiten du nire deia. Barkamena eskatzen hasten natzaio beti. Ez “kaixo” bat. “Barkatu”.

Bere ahotsaren atzean jarrita duen musika entzun dezaket, berari bakarrik entzun diodan Tom Rush izeneko tipo baten kanta zahar bat: “Urge for going”. Kaleko trafikoari isiltzeko eskatu nahi diot une honetan, eta berarekin batera entzun. Ezer esan gabe, entzun. Trafikoari Tom Rush, Irati eta hirurok bakean uzteko eskatu nahi diot. Baina horren orde, amarena kontatzen hasi behar natzaio, Iratik benetan zerbaitetarako deitu diodala pentsa dezan. Abestia entzuteari utzi diot eta nire ex-ari zentzuzko narrazio bat izan nahi duen zerbait egiten hasi natzaio. Sentimentala ez den zerbait.

“Amaren hau onartzeak mende honetan kokatzen al nau azkenean?”

“Ez du graziarik, Eli”.

“Zer du nire amak?”

“Zer galdetu nahi duzu?”

“Zergatik egiten duen”.

“Harrigarria irudituko zaizu baina zorientasuna modu aktiboan bilatzen duten pertsonak existitzen dira gure artean. Beraien gainean meteorito bat noiz eroriko den edo ama birjina mirarien saskiarekin noiz agertuko zaien zain ez daudenak. Benetakoak dira eta gure artean daude. Hori da zure amari gertatzen zaiona. Gelditzen zaion denbora honetan zorientasua izaten saiatzen ari dela. Eta egia esatea nahi baduzu, bejondeiola”.

“Ezkontzara etorri nahiko bazenu...”

“Ez, mila esker. Gainera, nire noblezia-titulua eta bere pribilegioak galdu nituen zure pisukidea izateari utzi nionean”.

Trafikoaren zaratarekin utzi nau bere album zaharretara itzultzeko. Hitzorduez gainezka du aste osoa eta pazienteen oharrak berrikusi behar ditu. Denbora batean haietako bat izan nintzen, ni ikusteari utzi nahi ziola esan baino lehen. Urtebete inguru. Alta hartzeko moduan ote nengoen galdetu nion eta berak ezetz erantzun. Beste psikologo baten telefonoa eman zidan eta, handik aste pare batera, afaltzera gonbidatu ninduen.

Aurrean mukizapi kaxa bat izan gabe hitz egiten genuen lehenengo aldia izan zen afari hura. Kaxa zenbatero aldatu behar izaten duen galdetu nion, baina berak ez zuen lanari buruz hitz egin nahi izan. Eta ez genuen gehiago hitz egin. Gauza gutxi batzuk jakin nituen Iratiri buruz gau hartan. Hollywood klasikoa eta 60-70 hamarkadetako folk amerikarra oso gustuko zituela. Eta gauza bakarra ikasi nuen niri buruz: emakume batekin harreman bat izateko prest egon nintekeela kontrako norabidean korrika atera gabe.

Norabide berean aurrera egin beharko nuela, ordea, ez zitzaidan hain argi gelditu. Handik bost urtera, Irati orain irekitzen ari naizen ate honetatik irten egin zen. Orduetik, nire ezintasunak bakarrik itxaroten nau heltzean.

III

“ZERGATIK ezkondu?”

“Nik zer dakit, Jon. Zergatik ezkontzen zarete gizakiak? Zergatik ezkondu zinen zu, Bego?”

“Ez hasi horrekin”.

“Galdera bat da”.

“Momentuari zegokiona zen”.

“Ba amaren momentuari dagokiona ez da ezkontzea”.

“Amari hiltzea dagokio orain, hori esan nahi duzu”.

Jonek muturra estutu du eta burua mugitzen du ezetz esateko, edo pilatzen ari zaizkion ideia guztiak astindu eta gainetik kentzeko.

“Ez dut hori esan”.

“Egia, ez duzu hori esan. Amari orain otorduetan hartu beharreko pilulen artean dagoen denbora hori betetzea dagokiola esan nahi duzu”.

“Hori ere ez dut esan”.

Berriz etorri zait burura. Zein txarrak garen gure etxean sentitzen ditugun gauzak disimulatzen. Jon gurasoen etxe-ko sukalde honetan buelta bat gehiago ematen ikusten baldin badut, zorabiatu egingo naizela iruditzen zait.

“Ados zaudete honekin?”

“Onartzen saiatzen ari naiz”.

“Ez dago atzera bueltarik. Arrisku posibleen aurrean nola egingo dugun pentsatzen hasi beharko genuke, berandu izan baino lehen. Notariatik pasa ea zein aholku ematen diguten. Hori guztia”.

Begoñaren pragmatismoak isildu gaitu. Haurrak ginetik, Jon eta biok zirkuluan buelta antzuak ematen temetzen ginenean, berak aurrerantz bultzatzen gintuen. Lurrera erortzen nintzen batzuetan, belaunak urraturik izaten nituen ia beti, baina oro har eskertzen diodan zerbait da.

Honetan, baina, buelta batzuk gelditzen zaizkit oraindik emateko, aurrera mugitu baino lehen.

Egongelara hurbildu naiz eta hor dago ama, telebistan sukaldari batek vichyssoise bat nola egiten duen ikusten. Sukaldaritza programek nigan kontrako efektua izan dute beti: plater horiek prestatzea aurretik uste nuena baino zailagoa iruditzen zait.

“Aitak oso gustuko zuen vichyssoisea”.

“Baliteke”.

“Ez duzu gogoratzen?”

“Oraintxe bertan ez. Baina hala izango zen. Zure aitari ia dena gustatzen zitzaion”.

“Eta Manueli?”

“Ez dakit. Auskalo”.

Amak eta Manuelek ez dutela elkar gehiegi ezagutzen konturatzen ari naiz. Akatsekin nazkatu baino lehen bietako bat hil egingo dela. Biak nahiko segidan, akaso. Gehiegi ezagutzen ez duten norbaiten oroitzapen onarekin hil nahiko dute. Lehenengo aldiak bakarrik bizi. Nazkarik ez. Asperdurarik ez.

Iratik nire alde txarra bakarrik ezagutu ahal izan zuen elkarrekin egon ginen bitartean. Ez nion besterik erakutsi. Ona noiz agertuko zain itxaroten egon zen, eta azkenean nazkatu eta alde egin. Bestelako oroitzapenik gabe.

IV

AZAROAREN hamabia. Hori izan zen auzoko elizako apaizak eman zion data. Gaurko egun euritsu hau. Azaroan ez da ia inor ezkontzen eta ez dabil ia inor kaletik. Ez da sagardotegi denboraldia ere, baina Manuelek hauetako batean egin nahi izan du bazkaria. Amari berdin zaio, baldin eta ez badiote txuleta oso gordinik ateratzen eta sagardo bila norbait bere ordeztuz altxatzen bada.

Trajea erosteko laguntza Begoñari eskatu zion duela aste batzuk. Ez zuen ezer berezirik nahi, zerbait sinplea baina elegantea, apaingarri askorik gabe.

“Badakit oso lanpetua zabiltzala”.

Hori esan zidan niri.

Nire gustu ilun eta tristea ez zaiola egokiena iruditzen esateko modu bat zen. Bere hiletaren egunean zer jantzi behar duen erabakitzeko erantzukizuna niri egokituko zait, ziur nago.

Ez dakit noiz izango den hori. Aspaldiko bolero bat dantzatzen ikusten dut Manuelekin eta oso urruti dirudi. Heriotzatik gertuago ematen dugu bere semeari errieta egiten ari zaion Begoñak, erretzen ez duen arren etengabe zigarroak eskatzen dabilen Jonek, sagardotekiko izkina batean

hotzak akabatzen eta bakarrik nagoen honek. Amaren senide eta lagunek aitaren antz handia dudala esaten didate, nire iritzia jakiteko amu modura. Aita gonbidatuena zerrendan egotea espero zutela ematen du, aulki huts bat utziko ziotela gutxienez.

Eta onartzen dut uneren batean inguruan begiratu eta bere bila aritu naizela. Berarekin izan zen gizon bati heldurik dantzatu nuen aldi bakarrenetako bat. Begoñaren ezkontzako argazki hura zeharo desberdina da gaur. Begoña banaketan pentsatzen ari da gintonic-ari helduta. Aita hilik dago. Eta nik, urrutitik Iratiren antza duela iruditu zaidan emakume horrengana gerturatu nahiko nukeen arren, badakit ez dudala egingo.

Zirku honen erdiko pistan ama ederra dago, irribarretsu, hain ondo ezagutzen ez duen Manuelek espero ez duen zerbait belarrira esaten dion bitartean, bata besteari helduta.

Gu ez bezala, mende honetan bizitzeko gai dira horrela, erori gabe.